



**2013KO MAIATZAREN 24KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko maiatzaren hogeita lauan, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estenso-ro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko maiatzaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Azertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 26 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA BEDERATZI MILA BEDERATZIEHUN ETA SEI EURO ETA HOGEITA BI ZETIMO (69.906,22€,-)tako onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- UDAL LANGILEEN ASEGURUAREN KONTRATAZIOAREN ESLEIPENA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2012ko abenduaren 17ko foru aginduaren bitartez, GENERALI ESPAÑA DE SEGUROS Y REASEGUROS S.A. (IFZ.: A28007268) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez "udal langileen bizitza-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboak" zerbitzua emateko esparru akordioa (X12003) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2013ko urtarrilaren 30ean emandako txostenaren arabera proposatu du "udal langileen bizitza-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboak" zerbitzua emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.



Lazkaoko Udalak kontratatzea beharko duen zerbitzuaren balio zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko lau mila eta hirurogeita hamahiru euro eta hirurogeita bi zentimo (4.073,62 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua GENERALI ESPAÑA DE SEGUROS Y REASEGUROS S.A. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez "udal langileen bizitza-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboak" zerbitzua emateko eratorritako kontratua (X12003) GENERALI ESPAÑA DE SEGUROS Y REASEGUROS S.A. enpresari (IFZ.:A28007268) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- GENERALI ESPAÑA DE SEGUROS Y REASEGUROS S.A., N.I.F.: A20095196, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, "udal langileen bizitza-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboak" gastua jasotzen duten 162.05 kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bi minutu gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A handwritten signature in blue ink, written over the official seal of the Ayuntamiento of Lazkao. The signature is stylized and appears to be the name of the official responsible for the document.